# Komisioen tarifak, baldintzak eta **bezeroei jasanaraz dakizkiekeen**

**68. EPIGRAFEA - TXEKEAK ETA TRAVELER TXEKEAK ATZERRIKO MONETAN.**

| ERAGIKETA KLASEA | KOMISIOAK % | KOMISIOAK MINIMOA Euroak |
|---|---|---|
| 1. Kontuan likidagarriak diren txekeak jaulkitzea atzerrian. | 5,00 | 15,03 |
| 2. Ezeztatzearen (Stop Payment) edota ordeztearen kudeaketa (ikus 3. oharra) | ---- | 30,05(a) |
| 3. Espainiako bankuek edo atzerrikoek atzerriko monetan edo eurotan egindako eta kontuan likidagarriak diren txekeen eta Traveler txekeen negoziazio eta konpentsazioagatiko komisioa. (Ikus 1. oharra) | 7,50 | 15,03 |
| 4. Kutxan likidatu daitezkeen Traveler txekeak. | 10,00 | 24,04 |
| 5. Atzerrian bankuek jaulkitako atzerriko monetako eta eurotako txekeen itzultzeagatiko komisioa. | 45,00 | 15,03 |

(a) Zenbatekoa finkoa da, ez da gutxienekoa.

**1. OHARRA** 3. puntuan biltzen diren dokumentuak kobrantza-kudeaketan hartzen direnean, dokumentu honetako 54. Epigrafearen 1.1 puntuan, atzerriko bidalketa arruntei buruzkoan, zehazten diren komisioak aplikatuko dira.

**2. OHARRA** Epigrafe honetako 3. eta 5. puntuei dagozkien komisiotik kanpo geratzen dira Espainiako bulegoetan eurotan jaulkitako txekeak. Horiei 03. Epigrafearen 1. puntuan, txekeen negoziazio eta konpentsazioari buruzkoan, ezarritakoak aplikatuko dira.

**3. OHARRA** Bezeroari banku korrespontsalak txekearen ezeztapena edo ordeztea dela eta jasanaraziko dizkigun komisio edo gastuak ere kobratuko zaizkio, horri buruz aurretik informatu eta hark baimena eman ondoren.

**4. OHARRA** Komisioak edota gastuak ez dira aplikatuko Epigrafe honetan jasotako pertsona juridikoen eta pertsona fisikoen eragiketa guztiei (aginduak, transferentziak, txekeak jaulkitzea, etab.), baldin eta pertsona juridikoek Bankuarekin adosten badute urriaren 28ko EHA/2899/2011 Agindua ez aplikatzea, beren lanbide- edo enpresajardueraren esparruan jarduteagatik komisio eta gastu batzuk itundu badira, eta komisio eta gastu horiek eragiketen zenbatekoaren, horien kopuru jakin bat burutzearen, epe jakin baten barruan burutzearen eta abarren arabera finkatzen badira, betiere itun horiek indarrean diren bitartean.

BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA, S.A. - San Nikolas plazatxoa, 4 - 48005 BILBO Bizkaia - 3858 liburukia, 1. folioa, BI-17 BIS-A orria, 1035. inskripzioa. IFK: A48265169